

## **Laura Pérez Borinaga diputatuak Bernedon bisitatu du alokairu sozialerako bost etxebizitza sortzea ahalbidetuko duen udal eraikin baten birgaitzea**

*Foru erakundeak 340.000 eurorekin finantzatzen du maisu-maistren etxe zaharra berreskuratzen duen jardueraren % 85, udalerriko etxebizitza publikoaren eskaintza handitzeko*

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 4a.** Laura Pérez Borinaga Lurralde Orekako eta Lurralde Antolaketako foru diputatua Bernedon izan da aste honetan, Udala alokairu sozialerako etxebizitza bihurtzen ari den udal titulartasuneko eraikin bat, maisu-maistren etxe zaharra, birgaitzeko proiektua bertatik bertara ezagutzeko.

Jarduerak Arabako Foru Aldundiaren babesa du, alokairu sozialerako eta/edo babestutako alokairurako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko tokiko erakundeei zuzendutako laguntza-ildoaren bidez. Programa honen helburua da Arabako udalerriek, batez ere biztanle gutxien dituztenek, beren etxebizitza-parke publikoa handitzea eta landa-ingurunean bizitzeko aukera berriak eskaintzea.

Bernedoko Udalak aurkeztutako proiektuak higiezia birgaitzea aurreikusten du, bost etxebizitza lortzeko. Guztira 468,96 metro karratuko azalera du, 78,16 metro karratu etxebizitza bakoitzeko. Diruz lagun daitekeen aurrekontua 400.000 eurokoa da, eta Foru Aldundiak emandako laguntza 340.000 eurokoa, hau da, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 85.

Aplikaturako dirulaguntzak barne hartzen du 2.000 biztanletik beherako udaletarako eta kontzejuetarako aurreikusitako ehuneko orokorra, bai eta energia-eraginkortasuneko jarduketei lotutako igoera gehigarria ere. Horrela, esku-hartzeak, Bernedon alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza handitzeaz gain, eraikinaren baldintza energetikoak eta bizigarritasun-baldintzak hobetzea ere ahalbidetuko du.

Laura Pérez Borinagak bisitan azpimarratu duenez, "etxebizitza funtsezko tresna da biztanleria finkatzeko, emantzipazioa bultzatzeko eta gure herriek bizirik jarraituko dutela bermatzeko". Ildo horretan, nabarmendu duenez, "Arabako Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzak aukera ematen du erabiltzen ez den udal-ondarea berreskuratzeko eta landa-ingurunean bizi nahi duten pertsona eta familientzako benetako aukera bihurtzeko".

Foru diputatuak gogorarazi du Arabako udalerrietan etxebizitza sustatzea Arabako Foru Aldundiaren lurralde-orekarako politiken parte dela, lurraldeko herri guztietan zerbitzuak, azpiegiturak eta aukerak indartzera bideratuta. Esku-hartzeari esker, udal-higiezin bat berreskuratzeko bidean aurrera egingo da, eta lehentasunezko premia baten zerbitzura jarriko da: alokairu sozial eta/edo babestutako etxebizitza eskuragarrien eskaintza handitzea udalerrian.

Proiektu honekin, Bernedok bat egiten du foru-laguntzak etxebizitza publikoak aktibatzeke, lehendik dauden eraikinak berreskuratzeke eta landa-inguruneak biztanleak erakartzeko eta mantentzeko baliabide gehiago izan ditzan erabiltzen ari diren Arabako toki-erakundeekin.